BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

2861

EBAZPENA, 2013ko maiatzaren 24koa, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariarena, landare-osasunerako produktuak aplikatzeko txartelak (oinarrizko mailakoak eta maila kualifikatuak) 253 eta 254 zenbakia duten ikastaroetako ikasleei ematea baimentzen duena.

EGITATEAK

Lehenengoa.– Arkauteko Nekazaritza Eskolak oinarrizko mailako 253 zenbakiko ikastaroa eman die Arabako nekazari eta abeltzainei, betiere, irailaren 14ko 1311/2012 Errege Dekretuko IV. eranskinaren A atalean (oinarrizko maila) finkatutako edukiarekin eta irakastorduekin bat etorriz. Dekretu horren bitartez, produktu fitosanitarioen erabilera iraunkorra lortzeko jarduketa-markoa ezartzen da.

Bigarrena.– Hazi eta Landare Zerbitzuan, Nekazaritzako Ingeniari Teknikoaren titulua duten pertsona batzuek maila kualifikatuko txartela eskatu dute.

Hirugarrena.– Landareen Osasuna Koordinatzeko Batzorde Teknikoak baiezkoa eman dio txartelak emateari.

Honako hauek ikusi dira:

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– 1311/2012 Errege Dekretua:

● Gaikuntza-mailei buruzko 18.1 artikuluko a) eta b) idatzi-zatiak eta prestakuntza-gaiei buruzko IV. eranskina.

● 18.2.b) artikulua, maila gaituko prestakuntza-ikastaroa egitetik honako hauek salbuesteari buruzkoa: 13. artikuluan ezarritakoarekin bat titulazio habilitatzaile bat dutenak, edo ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoko profesional-ziurtagiri bat edo lanbide heziketako titulazio bat dutenak, betiere IV. eranskineko B parteak jasotzen duen prestakuntzaren baliokidea egiaztatzeko baliagarri badira, eta

● 20. artikulua, txartelak eman, berritu edo kentzeari buruzkoa.

Bigarrena.– Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 190/2013 Dekretuaren 20.1.b) artikulua, zeinetan Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzari ematen baitzaizkio landareen osasunaren arloko funtzioak.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Nekazaritzako produktu fitosanitarioak aplikatuko dituztenentzako txartelak emateko agintzea.

1.– 253 zenbakiko ikastaroko oinarrizko maila ematea ebazpen honetako I. eranskinean zehaztutako pertsonei.

2.– 254 zenbakiko ikastaroko maila kualifikatua ematea ebazpen honetako II. eranskinean zehaztutako pertsonei.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango diote Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratzen den egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko maiatzaren 24a.

Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendaria,
EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO.

I. ERANSKINA

LANDARE-OSASUNERAKO APLIKATZEKO TXARTELA (OINARRIZKO MAILAKOA) JASOTZEKO BAIMENA EMAN ZAIEN PERTSONEN ZERRENDA (253 ZENBAKIKO IKASTAROA)

1. abizena	2. abizena	Izena	Txartel zk.
Alonso	Díez	Jesús	136/13
Alvarez de Arcaya	Fernández de Liger	Sergio	137/13
Anda	Villapún	Pablo	138/13
Angulo	Gutiérrez	Josu	139/13
Arias	Vázquez	José Ignacio	140/13
Chasco	Martínez de Antoñana	Luis Javier	141/13
De Los Ojos	Ibarguren	José Ramón	142/13
Foronda	Arróniz	Fernando	143/13
García	Martínez de Baroja	Jorge	144/13
García	Mardones	Ander	145/13
González	González	Justo	146/13
López	Pérez de Onraita	Rubén	147/13
López	Pérez de Onraita	Alfredo	148/13
López de Aguileta	Ochoa de Erive	Santiago	149/13
Martínez de Santos	Pereda	Mikel	150/13
Ortiz de Mártioda	Guzmán	Asier	151/13
Ortiz de Mártioda	Ochoa de Eguileor	Eneko	152/13
Palacios	Frías	Javier	153/13
Palacios	Frías	Fernando	154/13
Pérez	Benito	Luis Miguel	155/13
Pérez de Arrilucea	Uriarte	Roberto	156/13
Pérez de Onraita	Martínez de San Vicente	Aitor	157/13
Quintana	Murgui	Fernando	158/13
Ruiz de Azua	Elorza	Aitor	159/13
Sáenz de Castillo	Bejarano	Endika	160/13
Urkijo	Alijo	Elene	161/13

II. ERANSKINA

LANDARE-OSASUNERAKO APLIKATZEKO TXARTELA (MAILA KUALIFIKATUKOA) JASOTZEKO BAIMENA EMAN ZAIEN PERTSONEN ZERRENDA (254 ZENBAKIKO IKASTAROA)

1. abizena	2. abizena	Izena	Txartel zk.
Alonso	Galar	Edurne	162/13
Arina	Pascasio	Patricia	163/13
De Langarica	Alkalde	Aitor	164/13
Elorza	Sarasola	Ibai	165/13
Fiallegas	Palacios	Iker	166/13
López de Ullivarri	Tojal	Sergio	167/13
Martínez	Romeo	Mª Carmen	168/13
Rimada	Hernández	Leila María	169/13